

# Gazteak eta Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agenda

Euskadiko gazteen ezagutza eta iritziak 2023an

2023ko ekaina



GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD


- ❖ Ikerketaren fitxa teknikoa
- ❖ Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren ezagutza espontaneo
- ❖ Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendaren ezagutza iradokia
- ❖ Euskadin ekiteko lehentasunezko helburuak
- ❖ GJHen 2030 Agenda bultzatzea Euskadin
- ❖ Zenbait helburuk mundu mailan izan duten bilakaera
- ❖ Inplikazio pertsonala GJHetan. Konpromiso onargarriak

### ❖ Metodologia: kuantitatiboa, inkestaren bidezkoa

- Unibertsoa:** Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
- Lagina:** 1.531 gazte (385 Araban bizi dira, 619 Bizkaian, 467 Gipuzkoan eta 60 Euskaditik kanpo, gaur egun)
- Informazioa biltzeko prozedura:** online, gazteen lagin adierazgarri bati inkestarako esteka bidaliz
- Galdetegia:** egituratua norberak betetzeko, bertan galdera irekiak zein itxiak izanik
- Landa-lanaren datak:** 2023ko ekainaren 8tik 25era
- Lagin-errorea:**  $\pm$  % 2,5 (konfiantza maila % 95,5 izanik eta  $p=q=0,50$  baldintza teorikoan)
- Ikerketaren diseinua eta emaitzen analisisa:** Gazteen Euskal Behatokia
- Inkesten bilketa eta datu-basearen sorrera kudeatzea:** Ingartek Consulting S.L.

## GJH-EN 2030 AGENDAREN EZAGUTZA ESPONTANEOA (I. Bat-bateko ezagutza maila, taldeen arabera)


Zer edo zer entzun duzu Nazio Batuen Erakundeak (NBE, ONU gaztelaniaz) mundo mailan ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH, gaztelaniaz ODS) 2030 Agendari buruz? (%)



Euskadiko gazteen ia erdiak (% 48,7) dio, bat-batean, zerbait entzun duela Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendari buruz.


20 eta 24 urte bitarteko pertsonak, Bizkaian bizi direnak eta goi-mailako ikasketak dituztenak dira gai honetaz gehien entzun dutenak.

## GJH-EN 2030 AGENDAREN EZAGUTZA ESPONTANEOA (II. Zein gairekin lotzen den bat-batean 2030 Agenda)




GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD

*Zein bi gairekin lotzen duzu zuk, nagusiki, Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agenda?  
(Erantzun irekia; 2030 Agendari buruz zerbait entzun dutenen artean gai bakoitza aipatu  
dutenen %)*



2030 Agendari buruz zerbait entzun duten gazteek gehienbat lotzen dute natura zaintzearekin eta gure ekoizpen- eta kontsumo-ereduetan aldaketak onartzeko beharrarekin (ekonomia zirkularra, CO2 isurien murrizketa, trantsizio energetikoa...), planeta zaintzeko eta klima-aldaketaren aurka jarduteko, bai eta desberdintasunak murriztearekin (genero-desberdintasunak barne), gizarte-justziarekin eta giza eskubideekin, pobrezia eta gosea desagerraraztearekin, eta hezkuntza eta osasuna bermatzearekin ere.

## GJH-EN 2030 AGENDAREN EZAGUTZA ESPONTANEOA (III. Taldeen arteko desberdintasunak, lotzen den gaiei dagokienez)



GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD

*Zein bi gairekin lotzen duzu zuk, nagusiki, Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agenda? (Erantzun irekia; 2030 Agendari buruz zerbait entzun dutenen artean)*


Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Desberdintasunak murriztea, gizarte-justizia, giza-eskubideak, genero berdintasuna	Ingurumena, ekologia, naturaren zaintza	Ingurumena, ekologia, naturaren zaintza	Jasangarritasuna, kontsumo jasangarria, ekonomia zirkularra, birziklatzea	Ingurumena, ekologia, naturaren zaintza
Ingurumena, ekologia, naturaren zaintza	Jasangarritasuna, kontsumo jasangarria, ekonomia zirkularra, birziklatzea	Desberdintasunak murriztea, gizarte-justizia, giza-eskubideak, genero berdintasuna	Ingurumena, ekologia, naturaren zaintza	Desberdintasunak murriztea, gizarte-justizia, giza-eskubideak, genero berdintasuna
Jasangarritasuna, kontsumo jasangarria, ekonomia zirkularra, birziklatzea	Klima-aldaketa, klimaren aldeko ekintza	Jasangarritasuna, kontsumo jasangarria, ekonomia zirkularra, birziklatzea	Desberdintasunak murriztea, gizarte-justizia, giza-eskubideak, genero berdintasuna	Jasangarritasuna, kontsumo jasangarria, ekonomia zirkularra, birziklatzea
Klima-aldaketa, klimaren aldeko ekintza	Desberdintasunak murriztea, gizarte-justizia, giza-eskubideak, genero berdintasuna	Klima-aldaketa, klimaren aldeko ekintza	Klima-aldaketa, klimaren aldeko ekintza	Klima-aldaketa, klimaren aldeko ekintza
Pobrezia eta gosea desagerraraztea	Pobrezia eta gosea desagerraraztea	Kutsadura, CO2 isurien murrizketa	Pobrezia eta gosea desagerraraztea	Pobrezia eta gosea desagerraraztea

Aldeak handiak ez badira ere, ikus daiteke 2030 Agendari buruz zerbait entzun duten emakume gazteek era guztietako desberdintasunen murrizketarekin (generokoak barne) lotzen dutela nagusiki, bai eta giza-eskubideekin eta gizarte-justiarekin ere. Gizon gazteek, aldiz, ingurumenarekin lotutako alderdiak aipatzen dituzte batik bat.

Adin-taldeen araberako analisiak erakusten duenez, talde guztietan, 2030 Agendarekin modu espontaneoan erlazionatzen den lehen gaia ingurumenaren zaintza eta/edo kontsumo jasangarria da, desberdintasun sozialen gainetik, alde handia ez bada ere.


# GJH-EN 2030 AGENDAREN EZAGUTZA IRADOKIA

## (I. Iradokitako ezagutza maila, taldeen arabera)



GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD

*Ikusi dituzu Garapen Jasangarrirako Helburuen logo edo irudi hauek nonbait? Kartelak, erakustaldiak, aldizkariak, web orriak, eta abar? (irudia ikusi ondoren ezagutzen dutenen %)*




GJHen logoak ikusi ondoren, gazte gehienek, % 77,5ek, hain zuzen ere, nonbait ikusi dituela aitortu dute.

25 urtetik beherakoen artean eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean, GJHei lotutako irudiak ikusi izan dituztela aitortu dutenen ehunekoa % 80tik gora dago.

# EUSKADIN EKITEKO LEHENTASUNEZKO HELBURUAK (I. Lehentasunen sailkapena)

*Nazio Batuen Erakundearen (ONU) 2030 Agendak 17 helburu ezartzen ditu mundo mailan guztiontzako etorkizun jasangarriagoa eta duinagoa lortzeko. Zure ustez, helburu horietatik, zeintzuk izan beharko lukete lehentasunezko 3ak Euskadin ekiteko? (bakoitzaren aipamenen %)*



Euskadiko gazteen iritziz, Euskadin ekiteko lehentasunezko hiru helburuak hauek izan beharko lirateke: osasuna eta ongizatea (ia gazteen erdiek aipatu baitute: % 47,2k, hain zuzen ere), lan duina eta hazkunde ekonomikoa (% 35,3) eta kalitatezko hezkuntza (% 34,6).

Gainera, gazteen % 20ren eta % 30en artean beste hauek ere lehentasunezko zatik jo dituzte Euskadirako: pobrezia desagerraraztea, klimaren aldeko ekintza eta genero berdintasuna.




## EUSKADIN EKITEKO LEHENTASUNEZKO HELBURUAK (II. Lehetasunen bilakaera)



GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD

*Nazio Batuen Erakundearen (ONU) 2030 Agendak 17 helburu ezartzen ditu mundo mailan guztiontzako etorkizun jasangarriagoa eta duinagoa lortzeko. Zure ustez, helburu horietatik, zeintzuk izan beharko lukete lehentasunezko 3ak Euskadin ekiteko? (bakoitzaren aipamenen %)*



2022tik 2023ra igo egin da osasuna eta ongizatea, lan duina eta hazkunde ekonomikoa, bai eta klimaren aldeko ekintzak ere, Euskadin ekiteko lehentasunezko helburuak izan behar dutela uste duten gazteen ehunekoak. Aitzitik, azken urtean, behera egin du energia irigarria eta ez-kutsagarria izateari lehentasuna ematen diotenen ehunekoak; alderdi hori nabarmenagoa izan zen 2022an, elektrizitatearen eta petrolioaren eratorrien prezioen igoerarekin bat etorri zelako.

# EUSKADIN EKITEKO LEHENTASUNEZKO HELBURUAK

## (III. Lehentasunen sailkapena, taldeen arabera)


*Nazio Batuen Erakundearen (ONU) 2030 Agendak 17 helburu ezartzen ditu mundo mailan guztiontzako etorkizun jasangarriagoa eta duinagoa lortzeko. Zure ustez, helburu horietatik, zeintzuk izan beharko lukete lehentasunezko 3ak Euskadin ekiteko? (bakoitzaren aipameneren hurrenkera, generoaren, adinaren, lurralde historikoaren eta zeregin nagusiaren arabera)*

	1.	2.	3.	4.	5.	6.
<b>Guztira</b>	Osasuna eta ongizatea	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Kalitatezko hezkuntza	Pobrezia desagerraraztea	Klimaren aldeko ekintza	Genero berdintasuna
<b>Emakumeak</b>	Osasuna eta ongizatea	Kalitatezko hezkuntza	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Genero berdintasuna	Klimaren aldeko ekintza	Pobrezia desagerraraztea
<b>Gizonak</b>	Osasuna eta ongizatea	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Kalitatezko hezkuntza	Pobrezia desagerraraztea	Klimaren aldeko ekintza	Energia irisgarria eta ez kutsagarria
<b>15-19 urte</b>	Osasuna eta ongizatea	Kalitatezko hezkuntza	Pobrezia desagerraraztea	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Klimaren aldeko ekintza	Genero berdintasuna
<b>20-24 urte</b>	Osasuna eta ongizatea	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Kalitatezko hezkuntza	Pobrezia desagerraraztea	Klimaren aldeko ekintza	Genero berdintasuna
<b>25-29 urte</b>	Osasuna eta ongizatea	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Kalitatezko hezkuntza	Klimaren aldeko ekintza	Pobrezia desagerraraztea	Desberdintasunak murriztea
<b>Araba</b>	Osasuna eta ongizatea	Kalitatezko hezkuntza	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Genero berdintasuna	Pobrezia desagerraraztea	Desberdintasunak murriztea
<b>Bizkaia</b>	Osasuna eta ongizatea	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Kalitatezko hezkuntza	Pobrezia desagerraraztea	Klimaren aldeko ekintza	Genero berdintasuna
<b>Gipuzkoa</b>	Osasuna eta ongizatea	Kalitatezko hezkuntza	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Pobrezia desagerraraztea	Klimaren aldeko ekintza	Genero berdintasuna
<b>Ikasten</b>	Osasuna eta ongizatea	Kalitatezko hezkuntza	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Pobrezia desagerraraztea	Klimaren aldeko ekintza	Genero berdintasuna
<b>Lanean</b>	Osasuna eta ongizatea	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Kalitatezko hezkuntza	Klimaren aldeko ekintza	Pobrezia desagerraraztea	Genero berdintasuna
<b>Langabezia</b>	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Osasuna eta ongizatea	Pobrezia desagerraraztea	Kalitatezko hezkuntza	Klimaren aldeko ekintza	Genero berdintasuna


Talde guztietan gehien aipatu den helburua osasuna eta ongizatea izan da, langabezia dauden gazteen artean izan ezik, horiek lan duinari eta hazkunde ekonomikoari eman baitiote lehentasuna.

Emakumeen artean, genero berdintasuna laugarren postuan geratzen da; gizon gazteen artean, aldiz, ez da agertzen lehentasunezko sei helburuetan eta, seigarren postuan agertzen den helburua energia irisgarria eta ez kutsagarria da. Izan ere, gizonak bakarrik sartu dute energiari lotutako helburu hori lehenengo seien artean.

## GJH-EN 2030 AGENDA BULTZATZEA EUSKADIN (I. Gaur egun gehien bultzatzen duten erakundeak)



Zure ustez, Euskadin zein bi erakunde ari dira gehienbat 2030 Agenda bultzatzen?  
(bakoitzaren aipamenen %)



Gazteen iritziz, Euskadin 2030 Agenda gehien bultzatzen ari den erakundea Eusko Jaurlaritza da (horrela dio gazteen % 53k) eta, ondoren, elkarteak eta Gobernu Kanpoko Erakundeak (% 34,1).

Atzetik geratzen dira foru aldundiak, udalak, Euskadiko Gazteen Kontseilua (EGK) eta ikasketa-zentroak. Erakunde horien aipamena % 17 eta % 25 artean daude.

Oso gazte gutxi aipatu dituzte enpresak, baina egia da gazteen erdiak ez daudela lanean; lan egiten dutenen artean % 5,5ek bakarrik aipatu du bere enpresa.

Azkenik, beste erakunde edo taldeak aipatu dituztenen artean (gazte guztien % 3,3) hauek daude: Espainiako gobernuak, Europar Batasuneko gobernuak, unibertsitateak (nahiz eta bertan ikasten ez egon), herritarrak..., baina, batez ere, erakunde bakar bat ere ez dagoela ezer egiten kritikatzeko aprobetxatu da erantzun-aukera hau.

## GJH-EN 2030 AGENDA BULTZATZEA EUSKADIN

### (II. Gaur egun gehien bultzatzen duten erakundeak, taldeen arabera)

*Zure ustez, Euskadin zein bi erakunde ari dira gehienbat 2030 Agenda bultzatzen? (bakoitzaren aipamenen hurrenkerara, generoaren, adinaren, lurralde historikoaren eta zeregin nagusiaren arabera)*

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.
<b>Guztira</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Foru aldundiak	Udalak	EGK	Ikasketa-zentroa	Enpresa
<b>Emakumeak</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	EGK	Foru aldundiak	Udalak	Ikasketa-zentroa	Enpresa
<b>Gizonak</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Foru aldundiak	Udalak	Ikasketa-zentroa	EGK	Enpresa
<b>15-19 urte</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Ikasketa-zentroa	Foru aldundiak	EGK	Udalak	Enpresa
<b>20-24 urte</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Foru aldundiak	Udalak	EGK	Ikasketa-zentroa	Enpresa
<b>25-29 urte</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Foru aldundiak	Udalak	EGK	Ikasketa-zentroa	Enpresa
<b>Araba</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Udalak	Foru aldundiak	EGK	Ikasketa-zentroa	Enpresa
<b>Bizkaia</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Foru aldundiak	EGK	Udalak	Ikasketa-zentroa	Enpresa
<b>Gipuzkoa</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Udalak	Foru aldundiak	EGK	Ikasketa-zentroa	Enpresa
<b>Ikasten</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Ikasketa-zentroa	Foru aldundiak	EGK	Udalak	Enpresa
<b>Lanean</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Udalak	Foru aldundiak	EGK	Ikasketa-zentroa	Enpresa
<b>Langabezia</b>	Eusko Jaurlaritza	Elkarateak eta GKE (ONG)	Foru aldundiak	EGK	Udalak	Ikasketa-zentroa	Enpresa

Talde guztiak bat datoz Eusko Jaurlaritza eta elkarteak eta GKEak Euskadin 2030 Agenda gehien bultzatzen ari diren erakundeak direla esatean. Era berean, enpresak sailkapenaren azken postuan agertzen dira, talde guztietan.


Kasu gehienetan, foru aldundiak eta udalak sailkapenaren hirugarren eta laugarren tokietan daude, baina badaude salbuespenak: emakumeen artean hirugarren postua Euskadiko Gazteen Kontseiluarentzat da (EGK) eta 15 eta 19 urte bitartekoen artean, bai eta ikasleen artean ere, hirugarren tokian ikasketa-zentroa dago.

Arabian eta Gipuzkoan udalak hirugarren postuan daude, foru aldundien aurretik; Bizkaian, aldiz, udalak bosgarren tokian daude, foru aldundiaren eta EGKren atzetik.

## GJH-EN 2030 AGENDA BULTZATZEA EUSKADIN

### (III. GJHak betetzeko bidean aurrera egiteko eragile eraginkorrenak)

*Ondoko eragileetatik, zein hiru dira, zure ustez, gehien egin dezaketena Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko bidean aurrera egiteko? (bakoitzaren aipamenen %)*




Gazteek argi dute Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko bidean aurrera egiteko gehien egin dezaketena eragileak gobernuak eta administrazioak direla (Eusko Jaurlaritza, Espainiako gobernua, foru aldundiak, udalak eta abar) eta horrela azaldu du gazteen % 84,1ek.

Gazte gehienek (% 60,7k, hain zuzen ere) GJHak lortzeko bidean aurrera egiteko herritarrok ere asko egin dezakegula, izan ere, beste eragile batzuek baino gehiago egin dezakegula adierazi dute.

Gazteen erdiak, gutxi gorabehera, enpresek eta komunikabideek GJHak betetzeko bidean aurrera egiteko izan dezaketena papera ere nabarmendu du.

Soilik % 17,7k uste du GJHak eraginkorrenak izan daitezkeen hiru eragileetako bat direla. Gazteek aintzat hartzen dute Gobernuz Kanpoko Erakundeek gai honetan duten zeregina, baina ez dute uste haien lana eraginkorra izan daitekeenik gobernuen, herritarren eta enpresen esku hartzeko konpromisorik gabe.




*Ondoko eragileetatik, zein hiru dira, zure ustez, gehien egin dezaketenak Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko bidean aurrera egiteko? (bakoitzaren aipamenen hurrenkerara, generoaren, adinaren, lurralde historikoaren eta zeregin nagusiaren arabera)*

	1.	2.	3.	4.	5.
<b>Guztira</b>	Gobernuak eta administrazioak	Herritarrak	Enpresak	Komunikabideak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>Emakumeak</b>	Gobernuak eta administrazioak	Herritarrak	Komunikabideak	Enpresak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>Gizonak</b>	Gobernuak eta administrazioak	Herritarrak	Enpresak	Komunikabideak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>15-19 urte</b>	Gobernuak eta administrazioak	Herritarrak	Komunikabideak	Enpresak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>20-24 urte</b>	Gobernuak eta administrazioak	Enpresak	Herritarrak	Komunikabideak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>25-29 urte</b>	Gobernuak eta administrazioak	Enpresak	Herritarrak	Komunikabideak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>Araba</b>	Gobernuak eta administrazioak	Herritarrak	Enpresak	Komunikabideak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>Bizkaia</b>	Gobernuak eta administrazioak	Herritarrak	Enpresak	Komunikabideak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>Gipuzkoa</b>	Gobernuak eta administrazioak	Herritarrak	Enpresak	Komunikabideak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>Ikasten</b>	Gobernuak eta administrazioak	Herritarrak	Komunikabideak	Enpresak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>Lanean</b>	Gobernuak eta administrazioak	Enpresak	Herritarrak	Komunikabideak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
<b>Langabezian</b>	Gobernuak eta administrazioak	Enpresak	Komunikabideak	Herritarrak	Gobernuz Kanpoko Erakundeak


Talde guztiek adierazi dute gobernuak eta administrazioak direla Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko bidean aurrera egiteko gehien egin dezaketen eragileak, eta, aldi berean, talde guztiek adierazi dute Gobernuz Kanpoko Erakundeak direla gai horretan benetako ekintza-gaitasun txikiena duten eragileak.

15 eta 19 urte bitarteko gazteek eta ikasleek uste dute herritarrek eta komunikabideek enpresek baino gehiago egin dezaketela Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko; aldiz, 20 eta 29 urte bitarteko pertsonak eta lanean edo langabezian daudenek gaitasun handiagoa ematen diete enpresei helburu hauek lortzeko.

## ZENBAIT HELBURUK MUNDU MAILAN IZAN DUTEN BILAKAERA (I. Helburu batzuen arteko alderaketa)



*Zure ustez, mundu mailan, azken 12 hilabeteetan, nolako bilakaera izan du garapen jasagarriarekin lotutako ondoko eremu bakoitzak? Hobera egin du, bere horretan mantendu da edo okerrera egin du? (%)*



Gazteen ia erdiek uste dute klima-aldaketaren aurkako borrokaren munduko egoera berdin mantendu dela azken urtean (% 48,8), eta antzeko ehunekoak dute hobera egin duela uste dutenek (% 22,0) eta okerrera egin duela deritzotenek (% 20,0).


Hamar gaztetik lauk uste dute munduan giza-eskubideen sustapena antzeko egoeran dagoela iazko datuarekin (% 41,2) konparatuz gero, eta gehixeago dira bilakaera negatiboa izan dela uste dutenak (% 27,1) positiboa izan dela uste dutenak baino (% 22,1).

Gazteen % 18,0k baino ez du uste ekonomia jasagarriaren eta kalitatezko enpleguaren sustapenaren mundu mailako egoera hobetu egin dela; dezente gehiago dira berdin jarraitzen duela (% 37,4) edo okerrera egin duela (% 34,7) uste dutenak.

Pertzepzio negatiboa munduko pobrezia gainditzeari buruzkoa da: % 7,3k soilik uste du egoera hobera egin duela mundu mailan, eta % 39,8k, berriz, okerrera egin duela uste du.

## ZENBAIT HELBURUK MUNDU MAILAN IZAN DUTEN BILAKAERA (II. Klima-aldaketaren aurkako borroka)

Zure ustez, mundu mailan, azken 12 hilabeteetan, nolako bilakaera izan du garapen jasagarriarekin lotutako ondoko eremu bakoitzak? Hobera egin du, bere horretan mantendu da edo okerrera egin du? (%)



Gizon gazteak emakumeak baino baikorragoak dira klima-aldaketaren aurkako borroka azken urtean mundu mailan izan duen bilakaerari dagokionez; gizonen % 24,3k uste du hobera egin duela eta emakumeen artean % 19,6k bakarrik.


15 eta 19 urte bitarteko gazteek uste dute gehien klima-aldaketaren aurkako egoerak hobera egin duela (horien % 29,2), beste adin-taldeetan jasotako ehunekoak baino hamar puntu altuagoak.

Edozelan ere, iritzi hauek ekainean jaso ziren eta, baliteke, uda honetan munduko hainbat lekutan bizi izan diren klima-aldaketari lotutako gertaera meteorologikoen (hala nola, lehorteak, uholdeak, bero-boladak edo sute handiak) eragina izatea gazteen iritzi-aldaketan gai honi buruz.



## ZENBAIT HELBURUK MUNDU MAILAN IZAN DUTEN BILAKAERA (III. Munduan giza eskubideen babesak)

*Zure ustez, mundu mailan, azken 12 hilabeteetan, nolako bilakaera izan du garapen jasagarriarekin lotutako ondoko eremu bakoitzak? Hobera egin du, bere horretan mantendu da edo okerrera egin du? (%)*




Gizonek emakumeek baino neurri handiagoan uste dute azken urtean giza eskubideen babesak hobera egin duela mundu mailan (horrela uste du gizonen %26,8k eta emakumeen % 17,2k). Dena den, gutxi dira hobekuntza hori gertatu dela uste dutenak.

Zenbat eta nagusiagoa izan orduan eta gutxiago dira giza-eskubideen babesak, iaiztik hona, aurrera egin duela uste dutenak eta, aldiz, gero eta gehiago giza-eskubideekiko egoerak txarrera egin duela pentsatzen dutenak.

## ZENBAIT HELBURUK MUNDU MAILAN IZAN DUTEN BILAKAERA (IV. Ekonomia jasangarriaren eta kalitatezko enpleguaren sustapena)

Zure ustez, mundu mailan, azken 12 hilabeteetan, nolako bilakaera izan du garapen jasangarriarekin lotutako ondoko eremu bakoitzak? Hobera egin du, bere horretan mantendu da edo okerrera egin du? (%)




Talde guztietan, gehiago dira ekonomia jasangarriaren eta kalitatezko enpleguaren sustapenari buruzko egoerak azken urtean mundu mailan txarrera egin duela uste dutenak, hobera egin duela deritzotenak baino.

Adinean gora egin ahala handitu egiten da pertzepzio negatibo hori eta, izan ere, 25 eta 29 urte bitartekoen artean gehiago dira ekonomia eta enpleguarekiko egoerak txarrera egin duela uste dutenak, bere horretan mantendu dela pentsatzen dutenak baino.

## ZENBAIT HELBURUK MUNDU MAILAN IZAN DUTEN BILAKAERA (V. Munduan pobrezia bukatzea)

Zure ustez, mundu mailan, azken 12 hilabeteetan, nolako bilakaera izan du garapen jasangarriarekin lotutako ondoko eremu bakoitzak? Hobera egin du, bere horretan mantendu da edo okerrera egin du? (%)




Azken urtean munduan pobrezia desagertzeari buruzko egoerak hobera egin duela uste dutenen ehunekoa ez da % 10era iristen kolektibo bakar batean ere.

Adinean gora egin ahala areagotzen dira pobrezia lotutako egoerak, mundu mailan, txarrera egin duela uste duten gazteak eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 47,9ra iristen dira iritzi horretakoak, egoerak berdin jarraitu duela uste dutenen gaitetik, ia hamar puntu.

# INPLIKAZIO PERTSONALA GJH-ETAN. KONPROMISO ONARGARRIAK

## (I. Gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzen laguntzarekin lotuak)



GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD

*Eta zu zein neurritan egongo zinateke prest zure bizitzan aldaketak egiteko, 2030 Agendan aurrera egiteko? Gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzen laguntzarekin lotutako helburuari dagokionez, zure ohiko bizitzan har zenitzakeen konpromisoen adibide zehatz bat adierazi.*

Esandako ideien zerrenda luzea da, baina hauek dira norberak egin ditzakeen ekintzei buruz gehien errepikatu direnak:

- Nire inguruan gertatzen denari buruz informazio gehiago jasotzea, gehiago jakitea
- Dazkadan pribilegioei eta hainbat gairen aurrean hartzen ditudan jarrerei buruz hausnartzea, kontzientzia kritikoa hartzea
- Pertsona guztiak eta pentsatzeko eta bizitzeko aukera edo modu guztiak errespetatzea, gehiago enpatizatzen saiatzea eta aurreiritziak alde batera uztea
- Inor ez diskriminatzea eta jarrera edo iruzkin diskriminatzaile edo kaltegarririk ez onartzea
- Bidegabekeriak eta diskriminazioak salatzea, horrelako egoerak publiko egitea
- Beste pertsona batzuk (familia, lagunak, etab.) gai horren inguruan kontzientziatzen saiatzea, buloak gezurtatzea eta eredua ematea, sare sozialetan gai horri buruzko edukiak sortzea
- Justizia soziala defendatzen duten eta horretarako ekintzak proposatzen dituzten alderdi politikoei botoa ematea
- Erakundeei presioa egitea berdintasuna eta justizia soziala lortzeko neurriak har ditzaten, mobilizazio eta manifestazioetan parte hartzea, sindikatzea
- Zerbitzu publikoak defendatzea
- Gai honi buruzko eztabaidetan parte hartzea
- Auzoko ekintzetan, auzo-taldeetan parte hartzea
- Zergak ordaintzea, zergak ordaintzean iruzurrik egiten ez saiatzea
- Boluntariotzako kanpainetan eta proiektuetan laguntzea, GKEek dituzten proiektuei buruz gehiago informatzea
- Arropa, elikagaiak, dirua eta abar ematea
- Bidezko merkataritzako produktuak erostea; tokiko saltoki txikietan erostea
- Giza eskubideak errespetatzen ez dituzten edo langileak esplotatzen dituzten markei boikota egitea

## INPLIKAZIO PERTSONALA GJH-ETAN. KONPROMISO ONARGARRIAK (II. Genero-berdintasuna lortzen laguntzearekin lotuak I)

*Eta zu zein neurritan egongo zinateke prest zure bizitzan aldaketak egiteko, 2030 Agendan aurrera egiteko? Genero-berdintasuna lortzen laguntzearekin lotutako helburuari dagokionez, zure ohiko bizitzan har zenitzakeen konpromisoen adibide zehatz bat adierazi.*

Jarraian proposamen nagusiak laburbiltzen dira:

- Genero-berdintasunari buruz informazio gehiago biltzea eta beste pertsona batzuei informazio lortzen laguntzea
- Genero-estereotipoak baztertzea
- Diskurtso feminista izatea, ideia feministak zabaltzea
- Pertsona guztiak errespetatzea eta berdin tratatzea, haien generoa edozein dela ere, genero-identitate guztiak errespetatzea
- Mikromatxismoak saihestea, ekiditea
- Hizkera sexista saihestea, hizkuntza inklusiboa erabiltzea
- Sexismo- eta jazarpen-kasuak salatzea, genero-indarkeria salatzea, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzea
- Desberdintasun-egoerak salatzea, sare sozialak horretarako ere erabiltzea
- Ez isildu emakumeen (edo LGTBI+ kolektiboen) aurkako gutxiespenen edo iruzkinen aurrean
- Berdintasunaren aldeko tailerrak eta ekintzak antolatzea eta horietan parte hartzea (adibidez, genero-berdintasunaren aldeko mobilizazioetara joatea, enpresan berdintasun-planak egiten parte hartzea, etab.)
- Genero-berdintasuna defendatzen duten alderdi politikoei botoa ematea
- Emakumeei ikusgarritasuna ematen dieten ekintzak babestea (adibidez, zientzian edo kirolean)
- Haurrak (seme-alabak, anai-arrebak, ilobak, ikasleak...) eta adineko pertsonak genero-berdintasunean heztea
- Emakumeek egindako kultura-produktu gehiago kontsumitzea (liburuak, filmak, etab.) eta, alderantziz, eduki sexistak dituzten programei eta gainerako produktuei boikot egitea
- Emakumeak beren burua aurkeztera eta erantzukizuneko postuak betetzera animatzea, emakumeen lidergoa sustatzea

## INPLIKAZIO PERTSONALA GJH-ETAN. KONPROMISO ONARGARRIAK (II. Genero-Berdintasuna lortzen laguntzarekin lotuak II)

Emakumeen edo gizonen konpromiso espezifikoak ere badaude:

- Emakumeen kasuan,
  - Talde feministetan parte hartzea
  - Nire jarrerak eta iritziak gehiago defendatzea, gizonen aurrean ez kikiltzea
  - Emakumeak gizonak bezain gai garela, gauza berak egin ditzakegula eta, aldi berean, gizonak emakumeen lan berberak egin ditzaketela defendatzea
  - Tradizioz maskulinoak izan diren inguruneetan (lanekoak, ikasketetakoak, kiroltakoak, etab.) gehiago parte hartzea
- Gizonen kasuan,
  - Genero-desberdintasunaz hausnartzea eta horretaz jabetzea, desberdintasun-egoerak ezagutzen, identifikatzen ikastea
  - Etxeko lanetan eta zaintza-lanetan gehiago laguntzea, zeregin horiek zuzen banatzea
  - Nire lagun taldean edo inguruko gizonen artean lan pedagogikoa egitea

Aipatu behar da badirela pertsona batzuk, gutxi batzuk eta nagusiki gizonak, genero-desberdintasunik ez dagoela baieztatzen dutenak eta gaur egun indarrean dauden emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak kritikatzeko dituztenak.

## INPLIKAZIO PERTSONALA GJH-ETAN. KONPROMISO ONARGARRIAK (III. Ingurumena hobetzen laguntzarekin lotuak)

*Eta zu zein neurritan egongo zinateke prest zure bizitzan aldaketak egiteko, 2030 Agendan aurrera egiteko? Ingurumena hobetzen laguntzarekin lotutako helburuari dagokionez, zure ohiko bizitzan har zenitzakeen konpromisoen adibide zehatz bat adierazi.*

Hauexek dira gehien errepikatu diren konpromiso onargarriak:

- Birziklatzea eta birziklatzearen eta ingurumena zaintzearen garrantziaz kontzientziatzea
- Kontsumo jasangarria egitea, arduraz erostea, gutxiago kontsumitzea eta hondakin gutxiago sortzen saiatzea
- Produktu ekologikoak erostea
- Bigarren eskuko produktuak erostea
- Tokiko produktuak, hurbilekoak, Km0-koak kontsumitzea
- Plastikoen kontsumoa murriztea
- Uraren kontsumoa murriztea: txorrota irekita ez uztea, dutxa laburragoak hartzea, etab.
- Kontsumo elektrikoa murriztea: argia, aparatu elektronikoak eta abar itzaltzea.
- Haragiaren kontsumoa murriztea, beganoa izatea
- Garraio publikoa gehiago erabiltzea, bizikleta ere bai, oinez joan-etorri gehiago egitea, autoa partekatzea
- Online egindako erosketetan bilketa-puntuak erabiltzea, etxez etxeko bidalketaren orde; etxez etxeko banaketa dakarren janaririk ez erostea
- Etxean eguzki-plakak edo -panelak jartzea
- Ingurune naturaletan, mendietan, ibaietan, hondartzetan... zaborra biltzea
- Ingurumenaren aldeko ekimenetan eta mobilizazioetan parte hartzea
- Turismo jasangarriagoa egitea, hegazkina gutxiago erabiltzea
- Nire eguneroko ekintzek ingurumenean duten eraginari buruz hausnartzea
- Kutsatzen duten enpresak salatzea

# INPLIKAZIO PERTSONALA GJH-ETAN. KONPROMISO ONARGARRIAK

## (IV. Diskriminazioen aurrean aniztasuna eta bizikidetzaren errespetatzearekin lotuak)



GAZTEEN EUSKAL  
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO  
DE LA JUVENTUD

*Eta zu zein neurritan egongo zinateke prest zure bizitzan aldaketak egiteko, 2030 Agendan aurrera egiteko? Diskriminazioen aurrean aniztasuna eta bizikidetzaren errespetatzearekin lotutako helburuari dagokionez, zure ohiko bizitzan har zenitzakeen konpromisoen adibide zehatz bat adierazi.*

Hauek dira gehien errepikatu diren proposamenak:

- Jende guztia errespetuz tratatzea, aurreiritzirik gabe, inor baztertu gabe bere orientazio sexualagatik, arrazagatik, jatorriagatik, klase sozialagatik, edo beste edozein arrazoiengatik
- Hausnarketa eta autokritika: nire jarrera arrazistak edo diskriminatzaileak antzematen eta zuzentzen ikastea, nire portaerak eta jarrerak zalantzan jartzea, aurreiritziak baztertzea, enpatia handiagoa izatea
- Lekukoa zarela, esaten diren iruzkin xenofobo, arrazista edo matxistei (besteak beste) erantzutea, egoera horien aurrean isilik ez egotea
- Ez egin eta ez onartu izaera diskriminatzaileko txantxarik, ez egin ez ikusiarena eta ez kendu garrantzia gertakari horiei
- Diskriminazio-egoerak salatzea
- Gure gizartean gutxiengoa diren beste etnia, kultura eta erlijioei buruz gehiago informatzea, baita beste genero-identitate batzuei buruz ere; oro har, edozein aniztasun motari buruz
- Edozein diskriminazio mota jaso duten pertsonen entzutea, laguntzea eta ahotsa ematea
- Diskriminazio, arrazakeria, xenofobia, LGBTIfobia eta abarren aurkako kanpainak edo mobilizazioak babestea
- Ekitaldi multikulturaletan parte hartzea, aniztasuna ikusarazten laguntzea, aniztasunarekiko babesa agerian erakustea (eskumuturrekoak, txapak...erabiltzea)
- Beste kultura batzuetako jendearekin harreman gehiago izatea, lagun taldean pertsona desberdinak integratzea
- Hizkuntza inklusiboagoa erabiltzea, etiketak ez jartzea eta hitz egitean orokortzeak saihestea
- GKEekin edo elkarteekin parte hartzea edo lankidetzan aritzea, kolektibo kalteberei laguntzea
- Aniztasuna gehiago baloratzea
- Beste pertsona batzuk errespetuaren eta pertsona desberdinen inklusioaren garrantziaz eta aniztasunaren onurez kontzientziatzen saiatzea




## INPLIKAZIO PERTSONALA GJH-ETAN. KONPROMISO ONARGARRIAK (V. Gizartearen intereserako jarrera arduratsuak eta parte-hartzaileak asumitzearekin lotuak)

*Eta zu zein neurritan egongo zinateke prest zure bizitzan aldaketak egiteko, 2030 Agendan aurrera egiteko? Gizartearen intereserako jarrera arduratsuak eta parte-hartzaileak asumitzearekin lotutako helburuari dagokionez, zure ohiko bizitzan har zenitzakeen konpromisoen adibide zehatz bat adierazi.*

Hauek dira gehien aipatu diren konpromisoak, batez ere, herri edo auzo mailan erantzukizunak hartzearekin zerikusia dutenak:


- Ingurune hurbilean (udalerrria/auzoa, ikastegia, etab.) hainbat motatako jardueretan, tailerretan, hitzaldietan, batzarretan, mobilizazioetan eta abarretan gehiago parte hartzea
- Udalerrian/auzoan, ikastetxean eta abarretan jarduerak antolatzen laguntzea
- Elkarrekin edo GKEekin lankidetzan aritzea, boluntariora egitea
- Udalerriarekin/auzoarekin lotutako gaiekiko interes handiagoa erakustea, gehiago informatzea, komunitateko jendearekin harreman gehiago izatea arazoak, beharrak eta abar detektatzeko
- Udalek eta beste erakunde batzuek antolatutako partaidetza-prozesuetara jotzea
- Toki-aurrekontuen bozketetan parte hartzea
- Gazte-elkarteak sortzea, tokian tokiko ekimenak aurkezteko
- Eskerak sinatzea
- Batzarretan, bileretan, inkestetan, sare sozialetan eta abarretan nire iritzia ematea
- Politikan parte hartzea, bai botoa emanez, bai modu aktiboagoan eta konprometituagoan
- Sare sozialak edo streaming plataformak erabiltzea informazioa, diskurtsoak edo ekitaldi publikoak zabaltzeko
- Beste pertsona batzuk parte hartzera animatzea
- Pentsatzeko modu ez hain indibiduala eta taldekoagoa, komunitarioagoa izatea
- Ingurune naturala zaintzea
- Tokiko saltokietan kontsumitzea

## EMAITZA ESANGURATSUENAK (I)



- Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ia erdiak (% 48,7) dio, berez, Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agenda ezagutzen duela; eta, bere logoak ikustean, % 77,5ek aitortu du nonbait ikusi dituela.
- 2030 Agenda ezagutzen dutenek (gazteen % 48,7k), batez ere, natura zaintzarekin eta gure ekoizpen-eta kontsumo-ereduetan aldaketak (ekonomia zirkularra, CO2 isurien murrizketa, trantsizio energetikoa...) onartzeko beharrarekin lotzen dute, planeta zaintzeko eta klima-aldaketaren aurka jarduteko, baita desberdintasunak murriztearekin (genero-desberdintasunak barne), gizarte-justiziarekin eta giza eskubideekin, eta pobrezia eta gosea desagerraraztearekin ere.
- Gazteen ustez, Euskadin lehentasunez ekin beharko lirakeen garapen jasangarrirako hiru helburuak honako hauek dira: osasuna eta ongizatea (2030 Agendaren 3. helburua), lan duina eta hazkunde ekonomikoa (8. helburua) eta kalitatezko hezkuntza (4. helburua).
- 2022tik 2023ra, gora egin dute osasunari eta lanari lehentasuna emango lieketen gazteen ehunekoek, eta behera egin dute energia eskuragarriaren eta ez-kutsatzailearen aipamenek.
- Kolektibo guztietan osasunari eta ongizateari ematen zaie lehentasuna, langabezia dauden gazteen kasuan izan ezik, horiek uste baitute lan duina eta hazkunde ekonomikoa lehenetsi beharko lirakeela.
- Gazteen ustez, Eusko Jaurlaritza da 2030 Agenda gehien bultzatzen ari den erakundea, eta, ondoren, elkarteak eta Gobernu Kanpoko Erakundeak.
- Era berean, gazteen iritziz, gobernuak eta administrazioak dira Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzen aurrera egiteko ekintza-gaitasun handiena duten eragileak.

## EMAITZA ESANGURATSUENAK (II)



- Zenbait helbururekin lotutako mundu mailako egoerak azken urtean izan duen bilakaerari dagokionez, gazteen iritziz, klima-aldaketari buruzko egoerak iaz bezala jarraitzen du, eta hobera egin duela eta okerrera egin duela uste dutenen ehunekoak antzekoak dira (gogoratu behar da inkesta ekainean egin zela, uholdeen, bero-boladen eta sute handien aurretik, eta litekeena da horiek eragina izatea gazteen iritzietan). Bestalde, giza eskubideak bultzatzeari, ekonomia jasangarria eta kalitatezko enplegua sustatzeari eta munduan pobrezia gainditzeari dagokienez, kopururik handienak egoerak berdin jarraitzen duela uste dutenei dagozkie, baina askoz gehiago dira azken urtean munduko egoerak okerrera egin duela uste duten gazteak, hobera egin duela pentsatzen dutenak baino.
- Azkenik, gazteei 2030 Agendari laguntzeko, beren eguneroko bizitzan egingo lituzketen aldaketei buruz galdetu diegu; hau da, gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa, genero-berdintasun handiagoa, ingurumena hobetzea, diskriminazioen aurrean aniztasunarekiko eta bizikidetzarekiko errespetua indartzea eta komunitatearen intereserako jarrera arduratsu eta parte-hartzaileak hartzea lortzeko helburuei dagokionez, beren gain hartzeko prest egongo liratekeen konpromiso zehatzak azaltzeko eskatu diegu. Inkestatutako gazte gehienek (1.531tik 1.345ek, hau da, % 88k) proposamenen bat eman dute. Ideien zerrendetan nahastu egin dira pertsona bakoitzak, banaka, bere gain har ditzakeen neurrien proposamenak eta erakundeei edo gizarte osoari egindako eskaera orokorrak. Norberak bere gain har ditzakeen hainbat konpromiso helburu guztietara heda daitezke, eta honako puntu hauetan laburbil daitezke:
  - Informazio gehiago biltzea
  - Gai bakoitzari dagokionez, norberaren egoerari eta jarrerei buruzko hausnarketa handiagoa egitea, autokritika egitea
  - Aurreiritziak baztertu eta desberdintasuna errespetatu, aniztasunean berdintasuna defendatu
  - Salatzea eta mobilizatzea
  - Ingurune hurbilean ekintza eta jarduera zehatzetan parte hartzea
  - Erantzukizunak gain hartzea eta proaktiboak izatea

